

Gasteizen, 2015ko urtarrilaren 30ean

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de enero de 2015

HONAKO HAUEK BILDU DIRA

SE REUNEN

Iñigo Ansola Kareaga jauna, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusia, eta Iratxe Arriola Alzola andrea, Busturialdeko Ur Partzuergoaren lehendakaria

El Sr. D. Iñigo Ansola Kareaga, Director General de la Agencia Vasca del Agua y la Sra. Dña. Iratxe Arriola Alzola, Presidenta del Consorcio de Aguas de Busturialdea.

ETA ESKU HARTU DUTE

INTERVIENEN

Lehenak, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi den heinean, eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikulua ematen dion ahalmenarekin bat.

El primero en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de los Estatutos de la misma.

Bigarrenak, Busturialdeko Ur Partzuergoaren lehendakaria den heinean, erakunde horren legezko ordezkaritza bere gain hartuz.

La segunda en su calidad de Presidenta del Consorcio de Aguas de Busturialdea, y asumiendo la representación legal del mismo.

Aldeek LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzeko beharrezko legezko gaitasuna onartzen diote elkarri eta, horretarako.

Los intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACION, y a tal efecto

ADIERAZTEN DUTE

EXPONEN

LEHENENGOA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10. artikulua 11. eta 33. paragrafoekin bat, Autonomia Erkidegoari dagokio, haren lurralde-eremuan, ur-aprobetxamenduen gaineko eskumen osoa, urak Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen badira osoki, bai eta obra publikoen gaineko eskumena ere, horiek legez Estatuarentzat interes orokorreko zat jotzen ez badira, edo beste autonomia erkidego batzuetan eragiten ez badute.

PRIMERO.- Que, conforme al artículo 10, párrafos 11 y 33, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la competencia exclusiva en aprovechamientos hidráulicos, cuando las aguas discurran íntegramente dentro del País Vasco, así como en obras públicas que no tengan la calificación legal de interés general del Estado o cuya realización no afecte a otras Comunidades Autónomas.

Uztailaren 12ko 297/1994 Dekretuak baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen arloan Estatuaren egitekoak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruz Transferentzien Batzorde Mistoaren Akordioa onartu zuen eta Dekretu horren bidez eskualdatu ziren, besteak beste, EAEko lurralde-eremuan obra hidraulikoak egiteko toki-korporazioei laguntza ematekoak diren eginkizun eta bitartekoak, betiere lan horiek haren interesekoak badira, beste autonomia erkidego bati eragiten ez badiote eta legez estatuaren interes orokorreko zat jotzen ez badira.

Por Decreto 297/1994, de 12 de julio, por el que se aprobó el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias sobre traspaso de funciones de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de recursos y aprovechamientos hidráulicos, se transfirieron las funciones y medios correspondientes, entre otros, al otorgamiento de auxilios a corporaciones locales para la ejecución de obras hidráulicas que se realicen en el territorio de la Comunidad Autónoma, cuando tales actuaciones sean de su interés, su realización no afecte a otra Comunidad Autónoma y no tengan la calificación legal de interés general del Estado.



Stamps: ZUZENDARI NAGUSIA, BUSTURIALDEKO UR PARTZUERGOA, and a large blacked-out signature area.



BIGARRENA.- Ekainaren 23ko 1/2006 Legeak Uraren Euskal Agentzia sortu zuen ingurumenaren alorrean eskumena duen sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa; horren xedea da uraren politika gauzatzea EAEn eta, beste eginkizun batzuen artean, estatuko administrazioak eskualdatutako, eskuordetutako edo agindutako eginkizunak gauzatzea dagokio.

HIRUGARRENA.- Beste alde batetik, ur-hornidurako eta ur-saneamenduko zerbitzuak toki-administrazioaren eskumenekoak dira.

LAUGARRENA.- Busturialdeko Ur Partzuergoa haren eskumeneko lurralde-eremuan uraren zerbitzu osoa kudeatzeko sortu zen, haren estatutuen 1. artikuluan jasotzen den arabera.

BOSGARRENA.- Agiri hau izenpetzen duten administrazioak, bakoitza bere eskumenen esparruan, denbora luzez ari dira lan egiten hondakin-uren saneamendu egokian eta, aldi berean, jarduera horiek bateragarri eginez Urdaibai Biosferako Erreserbaren ingurumen-balioekin.

SEIGARRENA.- Erakundeen arteko aurreko hitzarmenen bidez, bai hitzarmen honen sinatzaile diren bi alderdien artekoen bidez, bai beste erakunde batzuekin - Bizkaiko Foru Aldundia eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa- egindakoen bidez, saneamendu eta arazketa azpiegituren zati handi bat egin ahal izan bada ere, oraindik ere ezinbestekoak diren lan batzuk egiteke daude.

ZAZPIGARRENA.- Urdaibairen Saneamenduaren Lurralde Ekintzako Planak, 2004ko irailaren 29an behin betiko onartua, barne hartzen ditu "Interzeptoreak Muxika-Gernika-Bermeoko ezker aldean" izeneko jarduerak.

ZORTZIGARRENA.- 2003ko abenduaren 23an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eta Busturialdeko Ur Partzuergoak lankidetzak hitzarmen bat sinatu zuten, Urdaibairen saneamenduaren Lurralde Ekintzako Planean definitutako saneamendu lanen proiektuak idatzi eta gauatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak 35.080.000 €-ko finantziazio konpromisoa bere gain hartuta.

SEGUNDO.- Que por Ley 1/2006, de 23 de junio, se creó la Agencia Vasca del Agua, como ente público de derecho privado adscrito al Departamento competente en materia de medio ambiente, cuyo objeto es llevar a cabo la política del agua en Euskadi y al que le corresponde, entre otras funciones, el ejercicio de aquellas transferidas, delegadas o encomendadas por la Administración estatal.

TERCERO.- Que por otra parte, los Servicios de Abastecimiento y Saneamiento de aguas son de competencia de la Administración local.

CUARTO.- El Consorcio de Aguas de Busturialdea se crea para la gestión conjunta del servicio integral del agua en el área territorial de su competencia, según figura en el artículo 1 de sus Estatutos.

QUINTO.- Que las Administraciones firmantes, en el ámbito de sus respectivas competencias, vienen trabajando desde hace tiempo en las actuaciones que permitan un saneamiento adecuado de las aguas residuales y que sean además compatibles con los valores ambientales que atesora la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

SEXTO.- Que anteriores convenios interinstitucionales, tanto entre las dos partes firmantes de este convenio, como con terceras administraciones, Diputación Foral de Bizkaia y Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente, han permitido la realización de una parte sustancial de las infraestructuras de saneamiento y depuración, pero permanecen todavía sin ejecutar algunas también imprescindibles.

SÉPTIMO.- El Plan de Acción Territorial de Saneamiento de Urdaibai, aprobado definitivamente el 29 de setiembre de 2004 incluye estas actuaciones, encuadrándolas bajo la denominación general de "Interceptores margen izquierda Muxika-Gernika-Bermeo".

OCTAVO.- Que el 23 de diciembre de 2003 se suscribió un convenio de colaboración entre el Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Consorcio de Aguas de Busturialdea para la redacción de proyectos y ejecución de obras de saneamiento definidas en el PAT de saneamiento de Urdaibai, con un compromiso de financiación por parte de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco de 35.080.000 euros.

Busturialdeko Ur
Partzuergoa





Lankidetza-hitzarmen horren harira honako lan hauek egin dira:

- Mundakako Itsasadarraren Ezkerraldeko Kolektore Orokorra. Sukarrieta-Lamiarango HUA tarte, 1zk.ko Banakatua.
- Mundakako Itsasadarraren Ezkerraldeko Kolektore Orokorra. Busturia-Sukarrieta tarte.
- Mundakako Itsasadarraren Ezkerraldeko Kolektore Orokorra. Mundaka-Lamiarango HUA tarte.
- Armotxarri (Forua) saneamendu proiektua.
- Maier kolektorea. (Muxika-Gernika tarte, 1zk.ko Banakatua).
- Kolektore orokorra eta saneamendu sarearen teleneurketa eta telekontrol sarea eraikitze proiektuak idatzi.

Finantziario eza dela-eta, hitzarmenean sinatutako gainontzeko jarduerak egin gabe gelditu dira.

BEDERATZIGARRENA.-

Lan hauek guztiak egiteak eskatzen duen ahalegin handia kontuan ikusita, Uraren Euskal Agentziak eta Busturialdeko Ur Partzuergoak honako Lankidetza-Hitzarmen hau izenpetzen dute, ondorengo klausula hauei jarraiki.

KLAUSULAK

LEHENENGOA.-HITZARMENAREN XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da Uraren Euskal Agentziak eta Busturialdeko Ur Partzuergoak bigarren klausulan jasotako lanak egiteko konpromisoa hartzea, horrela Busturialdeko saneamendu eta arazketaren funtsezko azpiegiturak burutzea ahalbidetzeko, Urdaibai Biosfera Erreserbako Saneamenduaren Lurralde Ekintzako Planak jasotzen duenarekin bat etorriz.

BIGARRENA.- EGIN BEHARREKO JARDUERAK

Honako proiektuen barne daude jasota egin beharreko lanak, ondorengo klausulei jarraituz.

- "2. zk.ko Banakatua: Mundakako Itsasadarraren Ezkerraldeko Kolektore Orokorren Eraikitze Proiektua. Sukarrieta-Lamiaran HUA tarte" Tarte honekin amaitzeko, batik bat, egin beharreko lana bulkatzeko ponpa eta ponpaketa estazio bat egitean datza, gainerako instalazioekin batera; ura beharrezko kotara eramateko helburuarekin saneamenduaren sistema orokorarekin bat egitea bermatuz.

Las obras ejecutadas a cargo de este convenio han sido las siguientes:

- Colector general de la margen izquierda de la ría de Mundaka. Desglosado nº1 del tramo Sukarrieta-EDAR de Lamiaran.
- Colector general de la margen izquierda de la ría de Mundaka. Tramo Busturia-Sukarrieta.
- Colector general de la margen izquierda de la ría de mundaka. Tramo Mundaka – EDAR Lamiaran
- Proyecto de saneamiento Armotxerri (Forua).
- Colector de Maier (Desglosado nº1 tramo Muxika-Gernika).
- Redacción de los proyectos constructivos del colector general y de la red de telemedida y telecontrol de la red de saneamiento.

El resto de las actuaciones definidas en el convenio han quedado sin ejecutar por falta de financiación.

NOVENO.- A la vista del importante esfuerzo que supone la ejecución de las mismas, la Agencia Vasca del Agua y el Consorcio de Aguas de Busturialdea, proceden a la formalización del presente convenio de colaboración, con arreglo a las siguientes

CLAÚSULAS


PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO

Es objeto del presente Convenio regular las condiciones en las que la Agencia Vasca del Agua y el Consorcio de Aguas de Busturialdea se comprometen a colaborar en la ejecución de las obras recogidas en la cláusula segunda, que permitan la finalización de las infraestructuras sustanciales para culminar el saneamiento y depuración de Busturialdea como recoge su Plan de Acción Territorial de Saneamiento.

SEGUNDA.- ACTUACIONES A EJECUTAR.

Las actuaciones a ejecutar, en los términos establecidos en las cláusulas siguientes, son las incluidas en los siguientes proyectos:

-"Desglosado n.º 2 del proyecto constructivo del Colector General de la margen izquierda de la ría de Mundaka (tramo Sukarrieta-EDAR Lamiaran)", que consiste fundamentalmente en la culminación de este tramo mediante la construcción de una estación de bombeo e impulsión con sus estructuras de incorporación y demás instalaciones relacionadas, con el objetivo de impulsar el agua a la cota necesaria que garantice su conexión con el sistema general de saneamiento.





- "Mundakako Itsasadarraren Ezkerraldeko Kolektore Orokorren Eraikitze Proiektua, Gernika-Lumo Busturia tarte". Gernika eta Busturia udalerrien artean obrak egitea, Muruetako zenbait auzotako hondakin-urak jasotzen dituzten bigarren mailako zenbait kolektore eta adar egitea ere barne, ponpaketa estazio eta guzti.

- "Mundakako Itsasadarraren Ezkerraldeko Kolektore Orokorren Eraikitze Proiektua, Muxika-Gernika tarte". Muxika eta Ajangiz udalerrien artean obrak egitea, Muxikako zenbait auzotako eta Arane Industrialdeko eta Gernika-Bermeo eta Muxika-Mungia errepideetako bidegurutzean dagoen industrialdeko hondakin-urak jasotzen dituzten bigarren mailako zenbait kolektore eta adar egitea ere barne, ponpaketa estazio eta guzti.

HIRUGARRENA.- URAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONPROMISOAK.

Honako eginkizun hauek gauzatzeko konpromisoa hartzen du Uraren Euskal Agentziak:

a) Aurreko klausulan jasotako proiektuen barruan dauden lanak kontratatzea, bai eta 2. klausulan jasotako proiektuen lanak bukatzeko obra-zuzendaritzak eta kontratazio organoak beharrezko irizten dioten bestelako zeinahi lan ere (Osagarriak, Aldatuak, etab.).

b) Lan horiek zuzentzea eta horien gauzatzea teknikoki ikuskatzea.

c) Hitzarmen honen arabera aipatutako lan horien kontratazioaren, gauzatzearen eta zuzendaritza teknikoaren kostua finantzatu eta ordaintzea.

d) Lizitazio publikoa izan baino lehen egin behar den proiektuen eguneratzea ordaintzea.

e) Lanak egiteari ekin aurretik, ingurumen-organo eskudunaren aurrean zer-nolako ingurumen-izapideak diren beharrezko aurkeztea aztertu eta beharrezko direnak izapidetzea.

f) Aldi oro Busturialdeko Ur Patzuergoaren teknikariak eraikuntza-lanen inguruko kontu eta gorabehera guztiez jakinaren gainean izatea. Xede horretarako, partzuergoak izendaturiko teknikaria bertaratu egingo da obra-zuzendaritzak kontratistarekin batera lanen segimendua egiteko egingo dituen obren jarraipenerako aldizkako bileretara eta, horrez gain, obretan sartu ahal izango da aurretiaz obra-zuzendaritzarekin hitzordua egin ondoren, eta betiere osasun eta segurtasun planaren baldintzak betez.

- "Proyecto constructivo del colector general de la margen izquierda de la ría de Mundaka (tramo Gernika-Lumo Busturia)", mediante la ejecución de las obras entre los municipios de Gernika y Busturia, incluyendo también varios colectores y ramales secundarios que recogen las aguas residuales de algunos barrios de Murueta, incluyendo estaciones de bombeo.

- "Proyecto constructivo del colector general de la margen izquierda de la Ría de Mundaka (tramo Muxika-Gernika)", consistente en las obras en los municipios de Muxika y Ajangiz, incluyendo también varios colectores y ramales secundarios que recogen las aguas residuales de algunos barrios de Muxika y de las zonas industriales de Arane Industrial y la situada en el cruce de las carreteras Gernika - Bermeo con la de Muxika - Mungia y estaciones de bombeo.

TERCERA.- COMPROMISOS DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA.

La Agencia Vasca del Agua se compromete a:

a) Contratar las obras incluidas en los proyectos recogidos en la cláusula precedente, y cualesquiera otras que resultaren precisas para la finalización efectiva de las obras de los proyectos mencionados en la cláusula segunda a juicio de la Dirección de las Obras y el órgano de contratación (Complementarios, Modificados etc.).

b) Dirigir e inspeccionar técnicamente la ejecución de las mismas.

c) Financiar y abonar el coste efectivo de la contratación, ejecución y dirección técnica de dichas obras en los términos previstos en el presente convenio.

d) Abonar el coste efectivo de la actualización de los proyectos constructivos que debe llevarse a cabo antes de su licitación pública.

e) Analizar la necesidad y llevar a cabo en su caso, los trámites ambientales precisos ante el órgano Ambiental competente con carácter previo a la ejecución material de las obras.

f) Mantener informado en todo momento a los técnicos del CAB sobre los pormenores y vicisitudes que rodeen a la construcción de las obras. A tal efecto, el técnico designado por el Consorcio asistirá a las reuniones periódicas de seguimiento de obra que la Dirección de Obra realice con el contratista para el seguimiento de las mismas y tendrá acceso, previa cita con la Dirección de Obra, al lugar de las obras cumpliendo las condiciones del Plan de Seguridad y Salud de éstas.





g) Busturialdeko Ur Partzuergoari eraikitako instalazioen titulartasuna lagatzea, obraren harrera egintza egin ondoren.

g) Ceder la titularidad de las instalaciones construidas al Consorcio de aguas de Busturialdea, una vez se efectúe la recepción de las obras.

Gehienez ere, Uraren Euskal Agentziaren ekarpenaren zenbatekoa BERROGEITA BEDERATZI MILIOI ETA HIRUROGEITA HAMAR MILA € -koa (49.070.000 €) da. Zenbateko hori honakoei dagokie: 2015erako BOST MILIOI € -ko (5.000.000 €) ordainketa-kreditua; 2016rako HAMAHIRU MILIOI €-ko (13.000.000 €) konpromiso-kreditua; 2017rako HAMABOST MILIOI BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMABOST MILA €-ko (15.535.000 €) konpromiso-kreditua; eta 2018rako HAMABOST MILIOI BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMABOST MILA €-ko (15.535.000 €) konpromiso-kreditua. Horiek guztiak Agentziak 23600000 kontutik finantzatuko ditu.

El importe máximo previsto como aportación que compromete la Agencia Vasca del Agua, es de CUARENTA Y NUEVE MILLONES SETENTA MIL (49.070.000 €), consistentes en un crédito de pago para 2015 de CINCO MILLONES DE EUROS (5.000.000 €), un crédito de compromiso para 2016 de TRECE MILLONES (13.000.000 €), un crédito de compromiso para 2017 de QUINCE MILLONES QUINIENTOS TREINTA Y CINCO MIL EUROS (15.535.000 €) y un crédito de compromiso para 2018 de QUINCE MILLONES QUINIENTOS TREINTA Y CINCO MIL EUROS (15.535.000 €), que se financiarán con cargo al presupuesto de la Agencia, imputable a la cuenta 23600000.

LAUGARRENA.- BUSTURIALDEKO PARTZUERGOAREN KONPROMISOAK.

UR- CUARTA.- COMPROMISOS DEL CONSORCIO DE AGUAS DE BUSTURIALDEA

Honako konpromisoak hartzen ditu Busturialdeko Ur Partzuergoak:

El Consorcio de Aguas de Busturialdea se compromete a:

a) Hitzamen honen xede diren eraikitze proiektu eguneratuak, bigarren klausulan jasoak, berak egitea.

a) Aportar los proyectos constructivos actualizados objeto del presente convenio, recogidos en la cláusula segunda.

b) Bere kontura obrak egiteko aldi baterako nahiz behin betiko behar diren lurak lortzea eta Agentziaren eskura jartzea.

b) Obtener, a su cargo, los terrenos precisos, temporal o definitivamente, para la ejecución de las obras y ponerlos a disposición de la Agencia.

c) Hitzarmenaren xede diren jardunetarako baimenak -hala badagokio baita hidraulikoak ere- lortzeaz gain, jardun horiek kontratatze eta gauzatze aldera, kontratu bidezko ez diren aurretiazko eta beharrezko gainerako izapide administratiboak ere lortzea.

c) Obtener las autorizaciones, incluidas de ser necesario las hidráulicas, y los demás trámites administrativos no contractuales previos y necesarios para la contratación y ejecución de las actuaciones objeto del convenio

d) Partzuergoaren Estatutuen 9. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Hitzarmen honen harira egiten diren lanak Busturialdeko Ur Partzuergoaren obratzat joko dira eta, beraz, toki-korporazioek berek eginak balira bezalako izaera eta egoera izango dute, eta, hortaz, ez dira behartuta egongo ez udal lizentziarik ateratzera, ez zergarik ordaintzera.

d) A los efectos de lo previsto en el artículo 9 de los Estatutos del Consorcio, las obras que se lleven a cabo en ejecución de este Convenio tendrán la consideración de obras del Consorcio de Aguas de Busturialdea y por lo tanto tendrán la misma naturaleza y condición que si fuesen realizadas por las propias corporaciones locales, no estando sujetos, en consecuencia, ni a la obtención de licencia municipal ni al pago de exacción alguna.

e) Obren garapenerako intereseko izan daitezkeen eta eskura dituzten informazio eta datu guztiak ematea.

e) Aportar todos los datos e información de que dispongan y pueda ser de interés para el desarrollo de los trabajos.

f) Lanen garapenean obra-zuzendaritzari laguntza eskaintzea, horretarako kontratista eta obra-zuzendaritzaren arteko asteko bileretara bertaratzuz.

f) Colaborar con la Dirección de las Obras en relación con el desarrollo de las mismas, asistiendo para ello a las reuniones semanales de obra entre el contratista y la dirección de obras.





g) Kudeaketa Plan bat aurkeztea, hitzartzen den azpiegituren zein, oro har, Busturialdeko saneamendu eta arazketa azpiegitura guztien mantentze eta ustiaketaren bideragarritasun eta jasagarritasun tekniko eta ekonomikoa bermatuko dituen, uren arloan indarrean dagoen araudiak horren inguruan xedaturikoa betez.

h) Eraikitako azpiegituraren zerbitzua abian jartzea, Agentziak obren harrera egintza egin eta Busturialdeko Ur Patzuergoaren alde horien titulartasuna laga ondoren. Horrez gain, jaso dituen azpiegituren kudeaketaz eta mantentzeaz arduratzea.

BOSGARRENA.- LANAK KONTRATATU, ZUZENDU ETA IKUSKATU.

1.- Uraren Euskal Agentziak bere gain hartzen du bigarren klausulan jasotako proiektuen barruan dauden lanak kontratatze ardurak, EAEko Administrazioaren lan-kontratazioaren araubideari jarraituz.

2.- Uraren Euskal Agentziak izango du lanak zuzentzeko eta ikuskapen teknikoa egiteko ardurak. Horrez gain, Agentziari dagokio ziurtapenak onartzea.

3.- Obrak dirauten bitartean, Busturialdeko Ur Partzuergoaren ardurapean dauden hondakin-uren saneamendu eta arazketan ez dagokio Uraren Euskal Agentziari inolako ardurarik.

SEIGARRENA.- HITZARMENAREN JARRAIPEN-BATZORDEA.

1.- Hitzarmenaren jarraipen-batzorde bat eratuko da, lau ordezkari osatuko dutena: Uraren Euskal Agentziako bi eta Busturialdeko Ur Partzuergoko beste bi. Hitzarmena izenpetzen duten alderdiek nork bere ordezkariak izendatuko ditu, honako eginkizun hauek gauza ditzaten:

a) Egin beharreko izapideak arin egitea galarazten duten oztopoak gainditzen laguntzea.

b) Hitzarmen honen helburu diren jarduketak egingo direla bermatze aldera, beharrezko neurriak proposatzea eta horien berri ematea, batez ere, aurrekontuaren urtekoak birbanatzeko kasurik izanez gero.

g) Presentar un Plan de Gestión que garantice y justifique la viabilidad y sostenibilidad técnica y económica del mantenimiento y explotación de las infraestructuras cuya ejecución se conviene y del conjunto de las de saneamiento y depuración de Busturialdea, en cumplimiento de las disposiciones al respecto de la normativa vigente en materia de aguas.

h) Poner en servicio la infraestructura construída una vez se lleve a cabo la recepción de las obras por parte de la Agencia y la cesión de su titularidad a favor del Consorcio de aguas de Busturialdea. Asimismo, asumirá la gestión, mantenimiento y reposición de las infraestructuras recibidas.

QUINTA.- CONTRATACIÓN, DIRECCIÓN E INSPECCIÓN DE LAS OBRAS.

1- La Agencia Vasca del Agua se hace cargo de la contratación de las obras incluidas en los proyectos recogidos en la cláusula segunda, según el régimen de contratación que le es aplicable a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2- Corresponderá a la Agencia Vasca del Agua la dirección e inspección técnica de las obras a ejecutar. Además corresponderá a la citada Agencia la aprobación de las certificaciones.

3- Durante la ejecución del convenio, la Agencia Vasca del Agua no asume compromiso ni responsabilidad alguna en cuanto a la obligación de saneamiento y depuración de aguas residuales que compete al Consorcio de Aguas de Busturialdea.

SEXTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DEL CONVENIO.

1.- Se constituirá una Comisión de Seguimiento del convenio compuesta por cuatro representantes, dos de la Agencia Vasca del Agua y otros dos del Consorcio de Aguas de Busturialdea, que se designarán, respectivamente, por las partes firmantes del presente Convenio, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

b) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio, especialmente en los supuestos de reajuste de anualidades.



c) Hitzarmena interpretatzeari eta gauzatzeari dagokionean, sor litezkeen arazoak ebaztea.

2.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, aldeetako edozeinek proposatuta, jarduketak ondo joan daitezen behar adina bider elkartuko da batzordea.

3.- Hitzarmenaren jarraipen-batzordeari buruz hitzarmenak berak berariaz aipatzen ez dituen gaitan, azaroaren 26ko 30/1992 Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen II. Tituluko II. Kapituluan kide anitzeko organoei buruz ezarritako araubidea aplikatuko da.

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENAREN ERREGIMENA ETA INTERPRETAZIOA.

1.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta berau interpretatu eta garatzeko, aplikagarri zaizkion ordenamendu juridiko eta administratiboaren mende egongo da.

2.- Hitzarmenak edo hitzarmenaren betearazpenak sorraraz ditzakeen interpretazio-arazoak hitzarmenaren jarraipen-batzordeak ebatziko ditu, aurreko klausulan esandakoari jarraituz; eta, horrela ezin badira ebatzi, azaroaren 26ko 30/1992 Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 8.3. artikulua xedatutakoari jarraituko zaio.

ZORTZIGARRENA.- HITZARMENAREN ERAGINAK ETA IRAUPENA.

1.- Hitzarmenak ez ditu parte-hartzaileak behartuko nork bere aginpideei uko egitera edo horiek aldatzera; hitzarmenaren ondorio diren konpromisoek dakartzaten erantzukizunak hartuko dituzte beren gain, ez besterik.

2.- Izenpetzen den unetik izango ditu ondorioak eta behartuko ditu alderdiak hitzarmen honek, eta azken obraren harrera egintzara arte izango da indarrean.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENAREN AMAIERA.

1.- Aurreko klausulan aipatutako iraupen-aldia igarotzeagatik edo aldeek suntsiarazi egin dutelako iraungiko da hitzarmena, ondorengo paragrafoan adierazitakoari jarraituz:

c) Resolver los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el convenio.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones.

3.- En lo no previsto expresamente en el convenio para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en el capítulo II del título 2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

SÉPTIMA.- RÉGIMEN E INTERPRETACIÓN DEL CONVENIO.

1.- El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico y administrativo que le sea de su aplicación.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la comisión de seguimiento según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en el artículo 8.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

OCTAVA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL CONVENIO.

1.- El convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, manteniéndose vigente hasta la recepción conforme del último de los trabajos.

NOVENA.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO.

1.- El convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia descrito en la cláusula anterior, o por resolución, de acuerdo con lo que se expone en el siguiente apartado.





2.- Aldeetako batek ez baditu betetzen bere gain hartutako konpromisoak, besteak eskubidea izango du hitzez hitz bete ditzala eskatzeko edo hitzarmena suntsiaraztea eskatzeko. Hitzarmena suntsiaraziz gero, alderdiek zehaztuko dute zer baldintzatan finantzatuko eta ordainduko diren gauzatzen ari diren jarduerak, eta, hala badagokio, nola entregatuko diren.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, para exigir su estricto cumplimiento o para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para financiación y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución y en su caso, para la posterior entrega de las mismas.


Eta ezarritakoari jarraituz eta ezarritako horrekin ados agertuz, bildu direnek hitzarmenaren bi ale sinatzen dituzte, goiburuan adierazitako leku eta egunean.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por duplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.



Iñigo Ansola Kareaga

**Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusia
Director General de la Agencia Vasca del Agua**



Iratxe Arriola Alzola

**Busturialdeko Ur Patzuergoaren lehendakaria
Presidenta del Consorcio de Aguas de Busturialdea**